


# Urpekariak

Fermin Etxegoien



Nerea Losada - Andrea Cachazo  
Aixerrota BHI, 15-16

## AURKIBIDEA

Fermin Etxegoien .....	3
Sarrera .....	3

### *Urpekariak*

● Kokapena .....	4
● Gaia .....	5
● Argumentua .....	5
● Istorioa .....	5
● Pertsonaiak .....	6
● Egituraketa .....	7
● Baliabideak .....	7
● Iritzia .....	9
Bibliografia eta webgrafia .....	10

# **URPEKARIAK**

## **Fermin Etxegoien**

Fermin Etxegoien da *Urpekariak* nobelaren egilea. Idazle hau 1966an jaiotako euskal kazetaria da, Oñatin hazitakoa. Hala ere, idazle bezala ere aritu izan da, bai artikulugile, baita irrati esatari bezala ere. *Berria*, *Argia*, *Euskadi Gaztea* eta *Bilbo Hiria Irratia* hedabideentzat lan egin du besteak beste; eta, horretatik aparte, ETB1eko *Kalaka* saioko gidoilaria ere izan da. 2004ean *Neurona eta Zeurona* saiakera argitaratu zuen, hizkuntzarena bizipen estetikoa dela proposatuta. 2009an *Autokarabana* eleberria argitaratu zuen eta 2013an argitaratu zuen bigarren eleberria: *Zinegotzia*. Lehenengo eleberriarekin Espainiako Kritika sari Nazionala eta Literaturaren Euskadi Saria irabazi zituen.

Autore honek idatzitako obretatik, *Urpekariak* (2015) eleberria da publiko gazteari zuzendutako lehenengo liburua. Horren bitartez, literatura esparru berri batean murgiltzen da Fermin Etxegoien, aurretik saiakera, helduei zuzendutako eleberriak eta elkarrizketa liburuak soilik argitaratu baititu.

## **Sarrera**

Fermin Etxegoien idazle euskaldunaren azken obra horrek Kataluniako Girona probintzian dagoen herri batean jazotako aita-emeen bizipena du oinarri. Bilboko familia baten istorioa narratzen da: gurasoek harremana hobetzeko asmoz, elkarrekin egon gabe deskantsatzea erabakitzen dute eta, horretarako, aita eta Jonanek, semeak, udako bidaia biek bakarrik egitea hautatzen dute, Gironara, hain zuzen ere. Bidaia laburra izan arren, bien arteko harremana estutzeko balioko du, baita Jonan gazteak bere izaera itxia alde batera utzi eta gainontzekoei irekitzeko.

Etorkizun hurbil batean kokatzen da istorioa, XXI. mendearen bigarren hamarkada pasatuta, hain zuzen. Hori ondorioztatu dezakegu Katalunia independente batean jazotzen delako istorioa, gobernu aldaketa baten ondoren. Hirugarren pertsonan dago idatzita, horren bidez, idazleak eleberrian nagusi diren lau pertsonaien pentsamenduak adierazi baititzake, nahiz eta pertsonaia garrantzitsuenak Joxemi, Jonanen aita, eta gaztea bera izan. Aita-semeak egiten duten bidaia horren bitartez idazleak jorratu nahi duen gairik garrantzitsuena guraso eta meeen arteko erlazioa da, baita euren arteko desberdintasunak eta sortzen diren arazoak. Horretatik aparte, idazlea amodioaren gaiaz ere mintzatzen da, bai maitasuna, baita maitasunaren amaiera ere, Jonanen gurasoen harremanari buruz ari denean, esate baterako.

Eleberriaren argumentua bi istorioren bateratzea da: alde batetik Jonanen familiaren istorioa dago, gaur eguneko familia askok bizi duten egoera izanik. Eta, beste alde batetik, Gironan bertan ezagutzen duten ama-alaba bikotearen istorioa dago, emakumearen eta neskatxaren maitasunezko iragana oinarri duena. Horrekin erakusten du idazleak pertsona bakoitzak bere iragana duela, ona nahiz txarra izan, eta iragana alde batera utziz, nork bere bizitzan istorio berri bat hasi dezakeela.

## ***Urpekariak***

### **Kokapena**

XXI. mendearen hasieran kokatzen da, Fermin Etxegoienek idatzitako eleberria, baina etorkizun hurbil batean, bigarren hamarkadaren ostean, behin Espainiako gobernuak aldatu eta Katalunia independente bihurtu delarik, hain zuzen ere. Istorioa jazotzen den momentuan Jonanek 15 urte ditu, nerabezaroan dago, adin horretako gazteen dituzten kezkek dituelarik. Idazleak hirugarren pertsonan idatzi duenez, pertsonaia guztien pentsamenduetan barneratzen da narratzailea, eta, teknika horren bitartez, istorioan aldi berean gertatzen ari diren bi ekintza kontatzeko gai da idazlea; horren adibide garbia da Jonan eta Dael gauean haiek bakarrik geratzen direnean, narratzaileak haiek egiten dutena narratzeaz gain, momentu berean Joxemik egiten duena adierazten duelako.

Fermin Etxegoienek idatzitako eleberri honek narratzen duen istorioa aste bakarrean jazotzen da, hau da, udako oporretan, Jonan eta aita Bilbotik abiatu eta aste bat pasatuta Bilbora itzultzen direnera arte jazotakoa soilik agertzen da istorioan, nahiz eta denbora-tarte laburra izan, gertaerak pertsonaien garapenerako oso garrantzitsuak diren bizipenak direlako.

Gazteen literaturan eleberri honen bitartez lehenengoz murgildutako idazle honek bi heldu eta bi nerabeen istorioan oinarritzen da, gaur eguneko gazteen artean pil-pilean dauden gaiak jorratuz eta gurasoek dituzten arazoak aipatuz. Horren ildotik, bi belaunaldien arteko diferentziak ere aurkezten ditu, askotan guraso eta seme-alaben artean arazoak ekar ditzaketeenak. Gai horietan barneratu ahal izateko, Jonan, Joxemi, Dael eta Luus dira idazleak erabili dituen oinarritzko lau pertsonaiak, istorioaren garapenerako ezinbestekoak direnak, hain zuzen ere.

# **Edukia**

## **Gaia**

Etorkizun gertu batean kokatuta, aita-emearen arteko harremanak, bakoitzak bere kezka eta arazoak izanik eta bakoitzak bizitzaren aurrean duen jarrera.

## **Argumentua**

Aita-emeak Gironako herri turistiko batera joaten dira udako oporrak igarotzera, gurasoak bata bestez deskantsatzea erabaki dutelako. Gironako L'Estartit herrira joan dira eta han beren oporren oinarri izango diren ama eta alaba holandarrak ezagutzen dituzte.

Emakumea eta bere alaba ezinbestekoak bihurtzen dira Joxemi eta Jonanen udako aste horretan, bai Luus gizonarentzat, bai Dael nerabearentzat. Egun horren ondorengoak ezin hobek izango dira Jonanentzat, Daelekin lehenengo maitasuna ezagutuko baitu, eta Joxemik poza sentitzen du bere semea hain ondo ikusita. Aitzitik, egun horietan Jonan ohartzen da aitaren bakardade puntuaz; alai dago aita, bai, baina ezinezkoa egiten zaio atsekabetasun keinua guztiz ezkutatzea.

Izugarrizko egun batzuk pasatzen ditu Jonanek Daelen ondoan, baina azkenengo egunetan, arrazoi edo azalpenik eman gabe, Daelek ez du Jonanekin hitz egin eta geratu nahi, eta horrek min egiten dio gazteari. Luusek bere alabari gertatzen zaiona Joxemiri kontatu ostean, gizonak semea azaltzen dio, benetako egia esan gabe: Daelek lehenengo mutil lagunarekiko duen menpekotasuna dela neska Jonanengandik alden duena.

## **Istoria**

Istoria zenbait gertakizunez osaturik dagoenez gero, zaila izango litzateke istorioa gauzatzeko beharrezkoak diren gertakizun batzuk soilik aukeratzea. Halaber, garrantzitsu batzuk aipatzekotan, aita-emeak bataioa egitera doazenean eta Jonan eta Dael biak bakarrik paseatzera joan eta musukatzen direnean izango lirateke.

- Aita-emeak bataioa egitea erabakitzen duten momentua ezinbestekoa da istorioaren garapenerako, irteera horretan ezagutzen baitituzte Dael eta bere ama, euren oporretan beharrezkoak bilakatzen direnak. Horrela, lehenengo aldiz ikusten diren momentu hori aipatzekoa da, une horretan ezagutu izan ez balira, hurrengo egunetan Jonanen bizitzak jasandako aldaketak ez liratekeelako gertatuko.

- Jonan eta Dael biak bakarrik geratzen diren momentua ere nabarmentzekoa da, gau horretan ematen duelako mutilak bere lehenengo musua, maitasun gaietan iniziatzen da, eta horrek eragina izango du, bai bere izaera itxian, baita bere bizitzan ere, esperientzia hori izango baita beregan konfiantza eman eta bere buruaz seguru egotea ahalbidetuko diona.

## **Pertsonaiak**

Idazleak hainbat pertsonaia aurkezten ditu istorioak aurrera egin ahala. Hala ere, istorioa garatzeko, gutxi batzuk soilik dira ezinbestekoak direnak, lau pertsonaia zehazki: Jonan, Joxemi, Dael eta Luus. Jonanen ama ere agertzen da, baina idazleak ez du asko sakontzen, buzero instruktoreekin gertatzen den bezala.

Lehenik eta behin, Jonan 15 urteko mutila da, istorio honetan pertsonaia nagusienetariko bat. Aita-emeak nahiko desberdinak dira gai askotan, baina istorioak aurrera egin ahala euren arteko harremana estutu egingo da. Jonan ez da bere adineko gazte guztiak bezalakoa, itxia da, ez da gainontzekoekin askorik erlazionatzen eta nahiago du bere logelan geratu. Bidaia horri esker, bizitzaren aurreko ikuspegia aldatuko du nerabeak, biziko duen maitasun istorioak begiak irekiko baitizkio.

Joxemik, Jonanen antzera, arazoak ditu, baina helduek dituzten arazoak: bere emaztearekin duen harremana ez dago bere momentu onenean, eta horrek zalantzak sortuko dizkio Joxemiri, batez ere Luus bere bizitzan sartzen denean. Nahiz eta bere semearen poztasunak alaitu egiten duen, Joxemi ez dago ondo, eta bere atsekabea ezkututzen saiatzen den arren, Jonan konturatu egingo da bere aitaren egoeraz.

Dael 13 urteko gazte holandarra da, Jonanen bizitza zeharo aldatu eta aztarna utziko duena. Bera izango da Jonani bere lehenengo musua emango diona; aitzitik, Daelek sekretu bat du: Bartzelonan ezinbestekoa egiten zaion mutil laguna du, eta, nahiz eta mutil horrek gaizki tratatu, neskak berarenganako menpekotasuna sentitzen du. Hori dela eta, Jonanekin bizi izandako maitasunezko istorioaz damutu egiten da.

Luusek, Daelen ama holandarrak, buruz behera jarriko du Joxemiren bizitza, gizonak bere emaztearekin duen harremanari buruzko zalantzak areagotu egingo baitizkio. Horretaz gain, Luus, edozein ama bezala, bere alabaren egoeraz larritzen da, eta ahal beste egiten du Daeli laguntzeko.

Azkenik, bigarren mailako pertsonaien artean, Marta dago, Joxemiren emaztea. Joxemi eta bere semea, Jonan, oporretan Gironako L´ Estartit herrira doazenean, atzean uzten dute Joxemiren emaztea, Bilbon, agian hirugarren aldiz Joxemirengandik banatzeko ideia buruan duelarik. Hori dela eta, elkarri atsedenaldira ematea erabakitzen dute bikotekideek.

## **Egituraketa**

Alde batetik, barne egiturari dagokionez, Etxegoienek idatzitako narrazioa nahiko lineala da eta, zentzu horretan, ez du arazorik planteatzen, irakurtzeko erraza egiten baitu horrek. Istorioaren hasieratik hasi eta pixkanaka-pixkanaka, modu lineal batean, amaierara heltzen da.

Beste alde batetik, kanpo egiturari dagokionez, idazleak hamabi kapitulutan antolatu du istorioa, eta horrek eleberria ulertzeko errazago egiten du, istorioa antolatu egiten baitu.

Hala ere, liburuak egitura nahiko normala du, egitura ohikoa erabili baitu Etxegoienek kasu honetan. Horretaz gain, momentu batzuetan oroitzapenen bitartez iraganeko pasarte batzuk aurkezten ditu idazleak eta aurrera begira dituzten proiektuen bitartez etorkizunari keinu batzuk ere egiten dizkio; baina, printzipioz, kontakizun kronologikoa da.

## **Baliabideak**

Fermin Etxegoienek idatzitako *Urpekariak* eleberria, genero narratiboaren barnean kokatzen da, narrazio guztiek dituzten ezaugarriak nabari direlako: narratzaile baten bidez istorio bat kontatzen du, pertsonaien presentzia ageri da, denboraren kokapena darabil eta, azkenik, genero honetako kontakizunak duten egitura bera du, hau da, lehenengo hasiera edo sarrera, ondoren garapena edo korapiloa eta, bukatzeko, amaiera.

Estiloari dagokionez, esaldiak kontzientzia izugarriaz neurtzen ditu, estilo garbi batekin. Ez du hiztegi arraro edo zailik erabiltzen, eta horrek errazago egiten du irakurketa, bai gazteentzat, bai euskara ez oso ona duen edonorentzat.

Eleberri honetan idazleak erabiltzen duen teknika deigarrienetako bat da elkarrizketak adierazteko modua. Marratxoak erabiltzen ditu askotan, baina beste momentu batzuetan ez du ezer erabiltzen, ezta komatxorik ere. Horren adibidea da hurrengo elkarrizketa:

*Baina Joxemi ere etenda zegoen.*

*Gustatzen zaizkit euskaldunak, esan zuen gizonak irribarrea ezpainetan marraztuta, eta buelta erdi eman eta alde egin zuen mangera biltzera. (91)*

Esaldi horretan antzeman daiteke Joxemik hitz egiten duela, baina idazleak ez du ezer erabiltzen gizonaren hitzak direla adierazteko.

Autore honek, idaztean, ahozko ezaugarriak ere sartzen ditu: erdarakadak, errepikapenak, elkarrizketak, menderakuntza gutxiko esaldiak... Horiek guztiak erabiliz, idazleak irakurlea txunditzea bilatzen du eta, batez ere, irakurle gazteari hurbildu nahi zaio, gaur eguneko gazteek erabiltzen dituzten zenbait esaldiz baliatuz.

Istoria kontatzen duen narratzailea 3. pertsona kontatzen duen narratzaile orojakilea da, hau da, gertatzen den eta gertatuko den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien buruan barneratzen da eta euren pentsamendu guztien berri da. Pertsonaien sentimenduak eta gertakarien arrazoiak ere ezagutzen ditu narratzaileak. Narratzaile orojakile horren aztarnak aurkitu ditzakegu pasarte horretan, adibidez:

*Zerbait gertatzen zen, dudarik ez zuen Joxemik. Semearen aurpegiari minaren intoxikazioa zerion, pozoiren bat balebil bezala hamabost urteko mutikoaren aurpegi puztuan, aita horrenbeste maite zuen semearen aurpegiko poztasun zerutiar horretan, ezustean barrutik tenkatua ageri zena, norbaitek edo zerbaitek Jonan alde ilunera eraman nahi izan balu bezala, bururatu zitzaion Joxemiri. Ez al zen gaixorik egongo semea? (129)*

Lerrokada horretan antzeman daiteke narratzaileak pertsonaiaren sentimendu eta sentsazio guztiak ezagutzen dituela, bere barnean sartu eta kontrolatu egiten duela.



## Iritzia

Eleberri honetan, idazleak hainbat gai jorratzen ditu eta, horri esker, *Urpekariak* nobela osatuagoa dela esan daiteke. Edozein irakurlek eskertuko lukeen zerbait, idazleak irakurlea istorioan barneratzeke ahalegina izango litzateke eta, kasu honetan, Fermin Etxegoienek lortu egin du: norbanako bakoitzari gertatu ahal zaizkion jazoerak kontatzen ditu, irakurlea pertsonaiarekin identifikatuta sentitzea ahalbidetu eta hausnar-bidera bultzatzen dutenak. Joxemi eta Jonanen arteko harremana, esate baterako, edozein aita-semeren arteko erlazioa izan liteke eta horrek identifikatuta sentitu den irakurlearen hausnarketa dakar, bere egoera ikuspuntu objektibo batetatik ikusi dezakeelako. Horretaz gain, nerabezaroan pil-pilean dagoen gaietariko bat jorratzen du idazleak: amodioa. Daelen eta Jonanen artean sortzen den maitasunezko harremanarekin identifikatzea ere oso erraza gerta dakioko irakurleari.

Behin eleberria irakurrita, nerabeen eta gurasoen arteko gorabeherak, zailtasunak eta pozak erakustea izan da Etxegoienek *Urpekariak* nobela idaztean izan duen helburua, eta oso ondo bete du. Gazteentzako literatura egin nahi zuen, eta emaitza oso ona lortu du: gazteengana heltzeko beharrezkoa da haien arreta erakartzea, eta horretarako Etxegoienek erabili duen teknika bikaina izan da.

Alde batetik, eleberri honek nerabezaro zein gaztaroan ohiko izaten den inimizazio-prozesua aurkezten du. Beste alde batetik, interesgarria eta erakargarria da liburuaren izenburua, *Urpekariak*, metafora moduan ere uler daitekeelako. Bi protagonistak urpekaritza egiten dute baina, horretaz gain, murgiltzeak sinbologia bat hartzen du, mutilaren inimizazioaz ere hitz egiten baitu, maitasunean, hain zuzen ere.

Hori gutxi balitz, idazkera garbia eta adierazkorra du Etxegoienek eta euskara naturala darabil, gure hizkuntzan irakurtzeko erreparoa dutenek ere hiztegi arazo handirik gabe irakurtzeko modukoa. Erabiltzen duen hiztegia edozein irakurlek ulertzeko modukoa denez, liburu eskuetan duenari irakurketa errazten dio, hori da liburuak duen ezaugarri bereziena. Liburu eroso, denbora-pasa edo egun batean irakurtzekoa da, kontaketa arina eta erritmo onekoa delakoa gehienetan.

Liburuko pasarte erakargarri bat aipatzekotan, honako lerrokada azpimarratu beharko litzateke, momentu berezia eta intimoa baita:

*Gainera, orain hilda bezala zeukan Daelen belaunean utzitako ezker eskua, bestelako mugimendurik egiteko kemenik gabe, goian eta behean oso garbi sentitzen bazuen ere, borborka, Daelen barne-bizitza eskuan eta belaunean. (101)*

Momentu hori irakurlea liburu zabalik mantentzera behartzen duten horietakoa dela esan daiteke. Idazleak bikain deskribatzen ditu momentu guztiak, baita pertsonaien pentsaerak ere.

Obra, oro har, oso gustura eta erraz irakurtzen den istorioa da. Arina, freskoa eta aktuala da eta, gainera, oso ondo egituratua. Azkenik, oso ondo plazaratzen du idazleak errealitateko egoera bat fikziora, irakurlea istorioan barneratzea lortuz. Beraz, *Urpekariak* eleberria norbaiti gomendatzekotan, bereziki amodio istorioak gustuko dituzten gazteei izango litzateke, Daelen eta Jonanen antzera, liburuan jorratzen diren gaietan inimizazio-prozesuan daudenei.

## **Bibliografia**

*Urpekariak*, Fermin Etxegoien. Erein, 2015.

## **Webgrafia**

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Fermin\\_Etxegoien](https://eu.wikipedia.org/wiki/Fermin_Etxegoien)

[www.erein.eus/libro/urpekariak](http://www.erein.eus/libro/urpekariak)

[goiena.eus/oinati/1448543792044](http://goiena.eus/oinati/1448543792044)

[ikasbilberri.ikasbil.net/.../irakurgai-mailakatuak-fitxa...](http://ikasbilberri.ikasbil.net/.../irakurgai-mailakatuak-fitxa...)

[aralarbhigazteliteratura.blogspot.com/.../urpekariak...](http://aralarbhigazteliteratura.blogspot.com/.../urpekariak...)